

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IRUNGO UDALAREN 2018KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den urriaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak aho batez onartu zuen Irungo Udalaren eta bere lau sozietate publikoen ekonomia- eta finantza-kudeaketa aztertzen duen fiskalizazio txostena; lau sozietateak honako hauek dira: Bidasoko Garapen Agentzia SA, Bidasoako Erakustazoka SA, Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAU eta Blaia Irungo Udal Hileta Zerbitzuak SA).

2018ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, nahiz adierazi duen Udalak ez dituela onartu 2017ko eta 2018ko ekitaldietako Balantzea, Eraitzen Kontua eta Oroitidazkia, ez baita ekitaldi horietako Kontu Orokorra formulatu. Gainera, Blaia sozietatean hainbat kontularitzako doiketa azaleratu dira eta horiek erregistratuz gero, Ondare Garbia 751.845 euroan murriztu beharko litzateke.

Fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **finantza egoerari** dagokionez, **Udalak ez du zorpetzeko beharrik izan** eta nahikoa izan da sortutako aurrezki garbia kapitalezko eragiketen defizita finantzatzeko.

Gainera, Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, Udalaren mendeko administrazio publikoaren sektorea osatzen duten erakundeek **2018ko** ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan **aurrekontuaren egonkortasun eta zorraren muga bete dute**. Ordea, ez da bete gastuaren araua, diruzaintza geldikina erabili izanaren ondorioz. Udalaren mendeko sozietate ez finantzario modura sailkatutako erakundeei dagokienez, Kontu-hartzaitzak ondorioztatu du finantza-orekako egoeran daudela, Bidasoako Erakustazoka SA izan ezik.

Honela, bada, bai Udalak, bai bere sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duen lege arautegia; alabaina, unean uneko ez-betetzeak azaleratu dira Administrazioako Kontratazioaren atalean: Bidasoako Erakustazoka SAk zuzenean esleitu du energia elektrikoa hornitzeko kontratua; eta Udalak eta Bidasoako Erakustazoka SAk, hurrenez hurren, esleitutako zerbitzuetako bi eta lau kontratu egikaritzen jarraitu dute behin iraungi ondoren.